

**2015eko Azaroaren 3an, arratsaldeko 19.30tan Urkuzuko txokoan, Urkuzu eta Garakoiko auzobatzarrari hasiera emoten zaio. (guztira 16 pertsona. 7 zinegotzi)**

Lehenengo eta behin alkateak 2011. urtetik hona auzoan egon diren eskaeren berri eta eginda dauzen eta pendiente dagozen gauzen aurkezpena egiten dau:

***Egin gabe gelditu direnak eta zergaitiak:***

-Panela: Aldundiari eskatuko jako bariantekoak aldatutea eta rotondakoak udalak aldatutea adostu da hirigintza batzordean.

-Oinezkoentzako zubia: estudio geoteknikoaren aurrekontua 6.000€ da, zimentazioa 15.000-20.000€ zubia 78.750€+iva.

-Transformadorera harririk jausi ez dituen gestinorik ez da egin.

-Abiadura mantsotuteko pastillak ipinteko eskaera egingo da rotonda aurrean

-Garakoiko "iragarki taula" aldatutea. Kamioiarekin aurrera eta atzera ibiltzeko tabloia aldatu nahi dan lekuen arazoak egongo litikez. Barriri azertu beharko da.

-EBAY bota eta gunea garbitu. Urte bat barru garbituko da eta errekaen enkauzamenduegaz laster hasi gaitzke. Enkauzamendurako URA-rekin adostutako proiektua aurkezten da.

-Herri mailako eskarian gainean futbol zelaiaren bedarra aldatzea eta gazte eta umeantzako aterpe gunehi gehiago egotea eskatu ziren ihaz eta aukera biak aztertzen gabilta.

***Auzotarrak hartzen dabe berbea:***

-Frontoiaren aterpearen gainean galdera egiten da. Prezio aldetik gareztiagoa da, udalean honen gainean egon diren eztabaidak aipatzen dira, frontoiak berak gero eukingo leuken erabileragaitik ez dan hobea izango erabilera anitzerako aterpe bat egitea...

-Garakoiko paradan aterpea egotea eskatzen da eta norabide bietan egotea ere bai (umeak eskolarantza doazenean eta... beharrezkoa delako).

-Urkuzun ez da Aurrekontuetako DVDA buzoi guztietan banatu. (bideoa jarri da dank ikusi ahal izateko).

-Zabortegiaren gainean galdera egiten da. Inerteen zaborteagian zer sartzen dan kontrolatu beharko litikela aipatzen da (ingurumenera bidaltzen dauz informeak enpresak).

-Argi farolan erraman konture zer egin ahal dan galdetzen da: farola alturan txikiagoak ipini, zuhaitzak kendu(?) erramak ebagi... Zuhaitz bi siku dagozela aipatzen da. Bide horretan pasureko arazoak dagozela aipatzen da (kotxe bi batera ez dira sartzen).

-Zubiko postean erramak gelditan dire, garbitu zen ihaz baina barriri batu dira.

-Pasarelaren gaineko eztabaida sortzen da, urtero eskatzen dutela eta 6 urte dabizela eskatzen eta ez dela lehentasun modura ikusten udalean esan dute. Udalak daukan dirua eta herritarrak egindako eskaerak (bakoitzak bere lehentasunak dituela ikusita).

-Bariantearen inguruen zarata handia dagoela aipatzen dute. Zenbateko zarata dagoen neurtu beharko litzatekeela.

-Gasa auzotik pasatzen dena etxeatarko erabili ahal dan galdetzen daurie. Kontsulta egingo da.

-Iturriek berreskuratutea (lapuretxekoa adibidez).